

3) FUNTSEZKO SOZietATEAK

Proiektua behar bezala garatu eta arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da gure hornitzaile nagusien jarduera. Guri, enpresa bezala, baliabide, ezagutza edo harreman estrategikoak eskaintzen dizkiguten pertsona edo erakundeak direnez, gure negozio eredua gauzatzeko gurekin lankidetzan egotea oso garrantzitsua da.

Lau hornitzaile nagusi identifikatu ditugu:

- 1) Atzerriko herrialdean etxea jartzen duten familiak.
- 2) Atzerriko herrialdeetan dauden eskolak.
- 3) Hegazkin konpainiak.
- 4) Bidaiak aseguratzeke aseguru konpainiak.

Hornitzaile hauek garrantzi berezia dute, hauen jarduerak bermatzen dutelako, enpresaren jarraitasun eta eraginkortasuna. Proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoak diren ondasun/zerbitzuak hornitzen dituztenez, harreman estua izatea ezinbestekoa da. Gure negozio eredua optimizatzeaz aparte, arriskuak murriztu eta baliabideak eskuratzeko prozesuan ezinbestekoak ditugu.



Gure kasuan, eskola publikoekin lankidetzak akordioak egingo ditugu. Bertako ikasleen gehiengoek atzerriko hizkuntza desberdinak ikasten dituztelarik, eskolen bidez iritsi ahal izango gara gure berri ematera ikasle potentzialei, negozioa aurrera eramateko.